

Herri Aldizkaria

Otamotz

2004ko ekaina 98. alea



Pako Vierbücher, 50 urteko lanaren testigantza

IRITZIZ IRITZI: JOSUNE ZARANDONA

ELKARRIZKETA: GEMMA ZABAleta

IZERDI PATSETAN: SUSANA FRAILE, JOKO OLINPIKOETAN



Goierri bus



Mugitegi industrialdea, 18 - 20700 URRETXU
49 P.K. - 20230 LEGAZPI
☎ 943 72 52 50 - Fax: 943 72 58 70

goierribus@euskalnet.net
www.goierribus.com

Beasain


COLORS

Zumarraga



Foto y diseño: Asier Larraza

ARGAZKI ZAHARRA



“Abiadura handikoa” ez zen arren, Urolako trenak ere izan zuen istripuren bat. Hona hemen 1957ko uztailaren 21ean kamioi baten aurka jo zueneko argazkia.




Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak**, **Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamentuak**, **Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73
Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.
Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga
Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Ferretería

BRAVO, S.L.



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA

2004ko ekaina

Jakak Zumarragari buruzko agiriak Udalaren esku utzi ditu

Anjel Kruz Jaka Legorburuk bizitza osoan zehar Zumarragako historiari buruz bildu dituen agiriak Udal Agiritegiaren esku utzi ditu. Hilaren 3an emate ekitaldia izan zen Zumarragako Udalean eta, bertan, Anjel Kruz Jakarekin batera, Luis Arzelus bere adiskidea, Antonio Prada agirizai-



na, Lucia Okariz idazkaria, Anton Arbulu alkatea eta hainbat zinegotzi izan ziren.

Jakak Udalari emandako agiri zaharrena XVI. mendekoa da eta berriena, berriz, 1930. urtekoa. Antonio Prada agirizainak esan zuenez, Jakak utzitakoek 2.000 espediente egiteko ematen dute. Izan ere, Anjel Kruz Jakak bizitza osoa eman du agiritegitik agiritegi-

ra Zumarraga eta inguruko herriei buruzko datu historikoak biltzen.

Frankismo garaian "Academia Errante" zeritzona sortu zuen eta euskal historia, etnografia eta artea ikertzeko eta eza-gutzera emateko lan itzela egin zuen. Horrez gain, Urretxu, Zumarraga eta Ezkioko historiari buruzko hainbat liburu argitaratu ditu.

Itsaski zozketa

Argazkian itsaski otarra eskutan duela gustura asko ikus dezakezen Belen Hercek irabazi zuen maiatzeko itsaski zozketa. Ekaineko zozketa berezia izan da eta hileroko itsaskiez gain, 10 lote txakolin eta otarrainska zozketatu dira. Sari nagusia Juan Jose Aperribaik irabazi du eta loteak Mari



Karmen Arzelusek, Legazpiko Inak, Jon Gabilondok, Nati Urrestarazuk, Karmele Urdangarinek, Lourdes Azurmendik, Maria Eugenia Irizarrek, Julio Fernandezek eta Susana Canalesek irabazi dituzte. Azken honek bi lote irabazi ditu. Euskararen normalizazioaren aldeko hurrengo itsaski zozketa ere berezia izango da, jasotako diru guztia Goierriko Hitza egunkaria martxan jartzen laguntzeko izango baita. Zozketa uztailaren 4an izango da, 20:30etan, Zintzo-Mintzok Areizaga-Kalebarren plazan jarriko duen txosnan.

www.megadenda.com



ramos

Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

bilintx


Fermin Calbeton. 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon. 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai. 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Megadenda
zure aukera musika eta liburutan



2004ko ekaina

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna



Ekaineko lehen astean Legazpi, Urretxu eta Zumarragako Udalek UGGASaren laguntzaz antolatutako Aste Berdea izan zen. Legazpin, hilaren 3an errausketa-plantei buruzko eztabaida izan zen eta hilaren 4an Legazpiko eta Urola Garaiko Ekobarometroa aurkeztu zen. Urretxu-Zumarragan antolatutako ekitaldiak, berriz, ekainaren 5eko goizean izan ziren; Ingurumenaren Nazioarteko Egunean.

Kalebarren-Areizaga plazara hurbildu zirenek zazpi pertsonentzako bizikletan ibiltzeko aukera izan zuten. Goenkalen lan egiten duen Ainhoa Aierbek eta Josu Lopezek bidegorrian gora eta behera egindako bidaiak girotu zituzten. Horretaz gain, gure herrien inguruko inkesta batean parte hartu zutenek 100 euroko zozketan parte hartu zuten. Irabazlea Xabier Lasa izan zen.

Antioko Amabirjiña ere Santa Isabeletarako prest

Lau hilabetez Irun eta Donostian egon ondoren, hilaren 10az geroztik Antioko Amabirjiñaren irudia bere tokian da; Santa Isabel egunerako prest. Lehenik eta behin Irunera eraman zuten, non zaharberritze lanak egin zizkioten. Ondoren, Donostian ikusgai izan da Gipuzkoako beste Amabirjiñen irudi batzuekin batera.

Zaharberritze lana Antioko Lagunen Elkartearen enkarguz egin da. Irudiaren egurrari tratamendua egin diote eta kaltetuta zeuden apaingarriak zaharberritu eta ezkutuan zirenak azaleratu dituzte.



EDURNE

GIZONEZKOEN
JANTZIDENDA ESKUZ
ALDATU NAHI DA

☎ 943 72 14 17

Narmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo
besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

centro óptico
JAVIER ARRATIBEL
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Herriko bertsolari gazteak Gipuzkoako txapeldun



Amaia Iturrioz eta Manex Mantxola urretxuarrek Gipuzkoako XXIV. Eskolarteko Bertsolari Txapelketako txikien mailako bat-bateko finala irabazi zuten maiatzeko azken ostiralean Zarautzen. Jone Alberdi urretxuarrak, berriz, aipamen berezia lortu zuen bertso-paperetan.

Txikien mailan irabazle suertatu den taldea Urretxu-Zumarragako Bertso Eskolako Amaiak eta Manexek, Ainhoa Mujika beasaindarrak eta Joseba Agirrezabala idiazabaldarrak osatu dute. Kanporaketan Edurne Plazaola eta Antzine Aranburuk ere kantatu zuten, beraz, txapela beraiena ere badela esan behar da.

Bat-bateko saioz gain, bertso-paperetako sariak ere banatu ziren eta arlo honetan Jone Alberdi urretxuarrak aipamen berezia lortu zuen bere mailan. Aipatu beharra dago bertso-paperetan haur askok hartzen duela parte eta ez dela batere erraza sariren bat lortzea. Aurten maila ezberdinetan banaturik 1.200 haur iguruk parte hartu dute.

Sari hauek guztiek gaztetxoek bertso eskola lehen fruituak ematen ari dela erakusten dute. Animo denei eta jarraitu bide horretatik!



Gainzuriko ikasleek artisten erara egindako lanan erakusketa

Hilabete honetan Gainzuri ikastetxeko ikasleek egindako eskulanean erakusketa ikusgai izan da Zumarragako Itarte Etxean. Gainzuri ikastetxeko ikasleek urtero prestatzen dute ikasturtean zehar egindako lanen erakusketa, baina aurtengo erakusketa oso berezia izan da. Izan ere, Gainzuri ikastetxekoek plastika klasean lan egiteko modua guztiz aldatu dute, duela urte pare bat Plastika Batzordea sortu zutenetik. Ordurarte ikasleek plastika klaseetan ereduak kopiazen bazituzten, azken ikasturte honetan sormenari lehentasuna eman diote.

Sormena bultzatzea helburu izan duen egitasmo honetan 3 eta 12 urte bitarteko ikasleek parte hartu dute. Lehenik eta behin pertzepzioa landu dute. Horretarako, haurrek zentzumenak eta sentimenduak lantzea helburu zuten hainbat jolasetan parte hartu dute, bai klasean eta bai mendian. Ondoren, euren ideiak, iritziak, sentipenak eta bizipenak espresatu dituzte askatasun osoz eta eskulanean bidez. Bukatzeko, euren lanen esanahia azaldu dute era ulergarrian. Prozesu honen bitartez, ikasleek autonomia, harremanen garapena, aniztasuna, ahozkotasuna eta sentsibilitatearen garapena landu dituzte, besteak beste.

Lan honen guztiaren fruitua Zumarragako Itarte Etxean ikusgai izan da. Erakusketan Gainzuri ikastetxeko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako haurrek material ugariz egindako ehundik gora lan ikusgai izan dira.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

2004ko ekaina


Lurraren 25. Dantzari Txiki eguna

Ekainaren 19an Urretxuko Lurra Dantza Taldearen 25. Dantzari Txiki eguna izan zen. 25. urteurrena zela eta, Lurra Dantza Taldekoek oroigarriak banatu zituzten Dantzari Txiki egunean parte hartu zuten taldeetako ordezkariari eta Lurrakoek Urretxuko Udalaren oroigarria jaso zuten. Horretaz gain, dantza taldean 25 urte bete dituzten Idoia Etxaniz eta Junkal Osinalderi omenaldia eskaini zitzaizkien. Zorionak biei eta segi lanean!



EHNA Tramitazio Eguna

Ekainaren 19an, EHNA tramitatzeko bulegoa ireki zen lehen urteurrenean, Tramitazio Eguna izan zen Legazpi, Urretxu eta Zumarragan. Tramitazio kopuruari bultzadaxoa emateko antolatu zen eguna arrakastatsua izan zen, Urretxuko Kultur Etxean 53 eskaera tramitatu baitziren eta Legazpin, berriz, 23. Horretaz gain, Areizaga-Kalebarren enparantzan EHNaren



aldeko elkarretaratzea egin zen. Aipatu, dagoeneko ia 500 urretxuar eta zumarratarrek eskatu dutela EHNA egitea Kultur Etxeko bulegoan. Bestalde, Bai Euskal Herriari ekimenak ekainaren 13ko hautes-

kundeetan EHNA erabiltzeko deialdia zabaldu zuen. Zumarragan 13 hautes-mahaietatik 9tan EHNA onartua izan zen eta Urretxun, berriz, 8 hautes-mahaietatik 7tan.

ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

Honakoa ekoizten dugu
HERCE
Elektrikitate M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

TABERNA

Belarretu
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belarretu

Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga, 30 ☎ 943 72 27 80
URRETXU

PAKO VIERBUCHER

Ezkontza erreportajeak
Argazki estudio eta artxiboa
Prozesu digitalak
Bideo profesionala
Argazkigintza materiala

Legazpi, 5 - ☎ 72 11 55 - Zumarraga

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurria

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



Josune Zarandona

Emakumea XXI. mendean

XXI. mendera ohituta gaude ia. Umea nintzenez bestela irudikatzen nuen nik ordea. 80. hamarkadan egiten ziren pelikulak ikustearen ondorioz edo George Orwell-en "1984" liburua gaztetoxa nintzenez irakurtzeak eraginik izango zuen agian.

Horregatik, hegan egiten zuten kotxeak, eguneroko zereginen arduratzen ziren robotak eta oporrak ilargian igarotzen zituzten turistak irudikatzen nituen XXI. mendeko protagonistak.

Hala ere azkenean, eta nahiz eta gauza batzuk aldatu diren, ixil-ixilik eta aparteko zalapartarik sortu gabe iritsi zen mende berria geurera. Ez dakit, baina akaso etorkizun batean emakumeren bat hegan egiten duen kotxe bat gidatzen ikusi ahal izango dugu. Zorte pixka batekin ondokoak "mujer tenía que ser" edo emakume izateagatik soilik gizonezkoek baino okerrago gidatzen dutela pentsatzeari utziko dion gizarte bat ezagutuko dugu. Agian oporretarako gune bilakatuko da ilargia baina, bertara turista gisa joango den lehena emakumezkoa izango al da?

Galdera horien erantzuna denboraren eskuetan utzi beharko dugu. Ordura arte, ordea, emakumeok gauza asko dauzkagu aldatzeko eta lan asko egiteko. Beti ere, egindako akatsak zuzenduz eta urteetako borrokaren ondorioz lortutako gauzak kontuan hartuz.

Pasatu den mendearen hasieran emakumea historia deitzen diogun horretan protagonista aktibo bihurtu zen. Botoa ematea bezalako oinarritzko eskubidea errealitate bihurtu zen emakumearentzat. Poliki-poliki gizartean presentzia handiagoa hartzen joan eta hamarkada batzuk geroago lan mundura salto egin zuen. Horri esker askatasun ekonomikoa lortu eta independenteagoa bilakatu zen.

Denbora pasatu ahala familia ereduak aldatuz joan dira. Ezkontza guztiak ez dira jada heriotzak banandu artekoak, gutxitze aldera egin dute, egun emakume batek bakarrik haurrak izatea posible da. Sexu harremanetan emakumearen beharrak ere aintzat hartzen dira. Azkenean emakumeak ere sexualki aktiboak gairela erakutsi ahal izan da, geuk ere gogoia izaten dugula, ez gaudela soilik gizonezkoen beharrak asetzeko.

Azken batean, emakumea bere buruaren jabe bihurtu dela esan daiteke eta pertsona eta gizarteko partaide moduan bere eskubideak aldarrikatzeari ekin dio. Baina, orduan, zergatik sentitzen naiz askotan nire eguneroko bizitzan emakumea izatea-

gatik soilik zapaldua, bigarren mailako pertsona baten gisa tratatua? Bizi garen gizarte hau, inguratzen gaituen hau guztia matxismoaren zipriztinez bustia dagoelako oraindik.

Emakumea ekonomikoki independentea bihurtu da, hori aipatu dut lehenago. Baina zergatik gertatzen da oraindik ere emakumeen duintasun ekonomikoa gizonezkoena baino merkeagoa? Lana aurkitzeko orduan, zergatik da gaur egun ere desabantaila haurdun gelditu ahal izatea? Garesti ateratzen zaielako agian?

Hala ere, zoritxarrez ez dago etxetik kanpora joan beharrik diskriminazio sexista badela frogatzeko. Jaiotzen garen momentutik familian bertan hasten direlako banatzen sexuaren arabeko rol ezberdinak. Txiki-txikiak garetik ezaugarri anitz geureganatzen hasten gara, horrela mutilek ez dutela negar egin behar eta neskak apainak eta ordenatuak izan behar dugula irakasten digute beste zenbait gauzaren artean. Etxeko lanen banaketa egiten denean ere, ez dago aipatu beharrik nori tokatzen zaion lan gehien egitea.

Boterearen sustengatze lanetan komunikabideek emakumearen irudiaren gainean egiten duten presioa ere aintzat hartzekoa da. Munduko zazpigarren boterea deitzen dioten honek, errealitate oso urrun dagoen emakumeen esteriotipoak zabalitzen ditu, eta orokorrean gizartea hauek imitatzen saiatzen da. Ez gaitetzen tranpa horretan erori. Indarkeria sexistari dagokionean, eta sozialki onartezina dela pentsatzen dudan arren, zoritxarrez errealitate normaldua bilakatu da. Urtea hasi denetik 30 emakumek galdu dute bizia beren bikotekideen eskuetan. Hau al da benetan gure ondorengoei utzi nahi diegun mundua?

Hau guztia kontuan hartuta, Euskal Herrian jaio garen emakumeok zapalketa bikoitza jasaten dugula esan daiteke. Estatu espainiarraren eta frantziarraren aurrean euskal herritar sentitzeagatik batetik eta gizarte matxista eta patriarkal honetan emakume izateagatik bestetik.

Euskal Herrian ohituta gaude geure askatasuna lortzearen borroka egiten, baina ezin dugu ahaztu gure herriak askapen nazional eta soziala lortzeko eraman behar duen bideetako bat patriarkatuaren aurkako borroka ere badela. Emakumearen zapalkuntza onartzen duen Euskal Herria ez delako inoiz guztiz askea izango.


ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Oporretara nora joateko asmoa duzu? Aukeran, nora joango zinateke?



Iñaki Urdangarin

Urtero Donostiara joaten gara eta aurten ere hala egingo dugu: 15 egunetarako joango gara. Horretarako dirurik izango banu, Amerikako Estatu Batuak alde batetik bestera zeharkatuko nituzke.




Javi Roman

Azkenaldi honetan hemen gelditu naiz, lanean edo bertako hondartzetan. Aurten ere hala egingo dut. Izan ere, ikasketak bukatu ditut eta lana bilatzen ari naiz. Nonbaitera joateko aukera izango banu, Valentziara, Benidorm aldera edo, joango nintzateke.



Sara Gutierrez

Urtero gurasoekin Valentziara joaten naiz. Bestelako oporretan, berriz, amaren herrira joaten gara. Aukeran, Egiptora joango nintzateke, beti oso gustukoa izan baitut.



Antonio Sainza

Aurten ere Extremadurara joango gara emaztearen herrira, Valle de la Serenara hain zuzen ere. Bero egiten du, baina gustura izaten gara. Aukeran, Suitzara joango nintzateke. Izan ere, bi urte eman nituen bertan lanean eta asko gustatu zitzaidan.



HARATEGIA URDAITEGIA
☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA



Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



ARKUPE
TABERNA



UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Gemma Zabaleta: "Udal jaio herritarrei irekiagoa izateko"



Alderdi sozialistak gogor jokatu zuen iazko udal hauteskundeetarako zerrendak osatzeko orduan. Hala, Zumarragan 1995etik 1999ra bitartean alkate izandako Anton Arbulu aurkeztu zen zerrendaburu eta Urretxun, berriz, politika munduan esperientzia handia duen Gemma Zabaleta ezaguna. Urretxun aurreko hauteskundeetako emaitzak hobetzea lortu ez bazuten ere, Gemmak gogotsu ekin zion zinegotzi lanari eta legealdia betetzeko asmoa du. Urretxuko zerrendan aurkezteko arrazoiez eta legealdiko lehen urtebetean bizitakoez hitz egiten izan gara berarekin.

Donostian jaio, Andoainen bizi eta Urretxun zinegotzi...

Donostian jaio nintzen eta bertan nire bizitzako zati garrantzitsua pasatu nuen, baina gero Andoainera joan nintzen bizitzera. Bertan hasi nintzen udal mailako lanetan, 1991tik 1995era bitarteko legealdian. Azken hauteskundeetan, mehatxu egoeraren ondorioz zerrendak osatzeko ditugun zailtasunak direla eta, kargudun sozialista guztiok udal mailako lanarekin konpromiso handiagoa hartu genuen. Hala, nik Urretxu eta Zumarragako kideekin hartu nuen konpromisoa.

Zortzi urteren bueltan, udal mailako politikara itzuli zara. Estatu edo erkidego mailako politikak ez duten xarma al du?

Udal mailako lana oso interesgarria da. Politikako funtsezko arloa dela iruditzen zait, herritarren arazoak konpontzeko lan egi-

“Bardura alderdi guztiei eta legea gustatuko litzaidake”

ten baita. Egun, euskal politika blokeatuta dagoen honetan, udal mailako politikaren freskotasuna oso onuragarria da. Dena den, euskal politikan demokrazian ohikoak ez diren bi egoera bizi ditugula esan beharra dago: ezker abertzalearen zati batek ez du nori bozkatu eta alderdi batzuk mehatxupean bizi dira. Alde batetik, alderdien legea dago eta, bestetik, ETaren legea. Bi lege hauek udal politika ere salbuespen egoeran jartzen dute.

Zergatik aukeratu zenuen Urretxu?

Nire aita Legazpin jaio zen eta aitaren aldeko familiarren zati bat Zumarragan bizi da, amaren familia ormaiztegiarra da jatorriz... eskualde honekin lotura handia dut familiarren bidez. Bestalde, ikuspuntu politikotik, euskal sozialismoaren historian hain garrantzitsua den inguru honetan alderdia indartzen laguntzea erronka polita iruditu zitzaidan. Gure helburua euskal sozialismoa Urretxun ere erreferentia izatea da. Ez da oso ondo ulertzen zergatik euskal sozialismoak Urretxun Zumarragan baino askoz ere indar txikiagoa duen. Urretxun, Zumarragan bezala, herritarrentzat erakargarria izango den proiektua eskaini beharra dugu, herritarrengandik hurbila eta gure herriko kultura-ri lotua.

Urretxura heldu zinenean, espero zenuena aurkitu al zenuen?

Udal jarduerari dagokionez, ez nuen espero onena aurkitu. Alde batetik konpondu beharreko arazoak daude (etxebizitza, herritarren eguneroko beharrak, etorkizuneko plangintza...) eta, bestetik, gauzak aurrera ateratzeko modua dago. Urretxuko udalean gauzak beti egin diren moduan egiten direla iruditzen zait, baina udal jardura alderdi guztiei eta herritarren iritzari eta partaidetzari askoz ere irekiagoa izatea gustatuko litzaidake. Gobernuan

urte asko daramatzana gobernatzera ohitzen da, baina legealdi hasiera gauzak egiteko modua aldatzeko une aproposa dela uste dut. Urretxuk etorkizunean izan nahi duen papera zehaztu beharra du. Horretan denok dugu zeregina, baita oposizioko alderdiok ere.

Zer pauso eman beharko lirateke herritarren eta oposizioko alderdidien partaidetza bultzatzeko?

Nire ustez, Udal ordezkariak duten erakundeetan, gobernu taldeko kideez gain, oposizioko alderdiek ere ordezkari

“Euskal politika blokeatuta dagoen honetan, udal mailako politikaren freskotasuna onuragarria da”

ritza izan beharko lukete. Denok gara herritarren ordezkariak. Horretaz gain, herritarren partaidetza bultzatu beharko litzateke, baita aurrekontuak zehazteko orduan ere. Gure ustez, udal mailako proiektua ezin da aurrera atera herritarren iritzia aintzat hartu gabe. Aurrekontua onartu zenean, gobernu taldearen planteamendua ordurarte egin zenarekin jarraitzea izateak txunditu egin ninduen. Legealdi hasieran erronka eta helburu berriak ezartzea iruditzen zait logikoena.

Herritarren partaidetzarako aukera eskasa iruditzen zaizu, beraz, arazorik larriena.

Horren eraginez beste gabezia asko sortzen dira. Bere garaian Udalak herritarren artean egingo zen inkesta bul-

tzatzea proposatu genuen, Udalaren lanaz duten iritzia, euren eskaerak... jasotzeko eta etorkizunerako prestatzeko asmoz. Nire ustez, Udala ez da gestio administratiboaz soilik arduratu behar. Udalak arima politikoa ere badu. Herritarrek ere exigenteagoak izan behar dira politikoei eta zinegotziekin lan egin behar dute. Herritarren partaidetza izango duten foro gehiago egotea gustatuko litzaidake.

Sarritan etortzen al zara Urretxura?

Andoainen bizi naiz, baina behar den guztietan etortzen naiz Urretxura. Hiri izaera duen herria dela iruditzen zait. Herriaren fisionomia atsegin dut, baina bere etorkizunak kezkatzen nau. Egoera ekonomikoa ez da oso ona eta Udalak garapen ekonomikoan parte hartu behar duela uste dut. Enpleguaren eta etxebizitzaren arazoak Udalaren lehenetsuna izan behar dute.

Urtebete daramazu jada Urretxun, zer nolako balorazioa egiten duzu?

Ondo hartu ninduten eta oso gustura nago. Gure taldea urretxuaren eskakizunei eta arazoei irekia dago, baina herritarren eta Udalaren arteko harreman gabezia somatzen dugu. Bestalde, Udalaren barne, langileen egoeran eragina duten arazoak daude. Arazo horiek ez dira konpontzen eta hori kaltegarria da, udalaren egiturak berak ondo funtzionatzea oinarritzeko baita. Udal langileak Udal egitasmoarekin bat etortzea funtsezkoa da. Hori guztia konpontzea espero dut.

Zein izaten ari da edo zein gustatuko litzazuke izatea zuen ekarpena?

Giza Eskubideen Batzordea sortzeko ahalegina egin genuen eta batzuen eta besteon arteko hesiak gainditzeko oso garrantzitsua izaten ari da. Zentzu horretan, ahalik eta alor gehienetan Urretxuk eta Zumarragak egitasmo eta erantzun batera-

tua izan dezaten lan egiten ari gara. Izan ere, trafiko, gazteria, drogomenpekotasun... mailan ditugun arazoak amankomunak dira. Indarrak batu behar dira eta dagoeneko zenbait pauso eman dira.

Zein batzordetan parte hartzen duzu?

Alderdikideok gobernu batzordearen jarraipena egiten dugu eta batzorde guztietan parte hartzen dugu. Nik Giza Eskubideen batzordean parte hartzen dut batez ere eta Hirigintza batzordeko bileretara ere ahalik eta gehien joaten naiz. Oposizioan gaude, baina gure botoa sekula ez da herritarrentzat onuragarria den zer edo zeren kontrakoa izango. Oposizio lana ez dugu hauteskunderi begira egingo eta ez gara zoritxarrez baliatzen saiaturiko. Lehengoan, esaterako, Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programarekin bat egitearen aldeko mozioa aurkeztu genuen. Programa horren helburua etxebizitza hutsak herritarren esku jartzea da eta etxebizitzaren gaiak lehenetsia duela uste dugu.

Batez ere Giza Eskubideen batzordean parte hartzen duzula esan duzu. Zer aurrerapauso eman dira?

Giza Eskubideen batzordea oso garrantzitsua dela uste dugu. Euskal presoekin senitartekoek Udalarekin harremana izan nahi zuten eta giza eskubideen boronbideraren inguruan zer edo zer esateko duen edonori batzordean parte hartzeko gonbitea luzatu diogu. Batzorde horretan, euskal presoekin senitartekoen arazoez gain, emakumeen aurkako indarkeria ere landu dugu. Monografikoetan oinarriturik eztabaida publikoak antolatu ditugu: lehen euskal presoekin egoerari buruzkoa izan zen eta mehatxatuta dauden pertsonen bizi duten egoerari buruzkoa eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa era antolatu behar ditugu. Batzorde honetako lana elkarri bizkarra ematen jarraitzeari



“Giza Eskubideen batzordea elkarri bizkarra ematen jarraitzeari uzteko garrantzitsua da”

uzteko oso garrantzitsua da. Gauzak udalerriri mailan mugitzen ez badira, zaila izango da goiko mailetan mugitzea.

Batzorde horretan ere Herribide eta Pagotxeta plataformako ordezkariak ere parte hartzen dute, zer iruditzen zaizu?

Herritarren zati bat ordezkatzeko dute eta euren partaidetza bizitza politikoren normalizaziorako onuragarria da. Juridikoki onarpenik ez duten arren, balio politikoa handia du. Euren iritzia aintzat hartu behar da eta espresatzeko eskubidea dute. Errealitatearen eta posible den artean esparrua dago eta posible dena egin beharra dago. Ea aipatutako salbuespeneko bi egoera horiek lehenbailehen gaintzen ditugun! Batera gaintu behar direla uste dut eta hori egiteko modua topatu beharra dugu.

Zure pentsakera den hori izanik, nahi

bezain eroso sentitzen al zara zure alderdian?

Nire alderdia plurala da eta alderdi barruan iritzia azaltzeko askatasuna dugu. Nire iritzia publikoan zein pribatuan azaltzen ditut eta eztabaidagarriak dira. Denbora luzean hausnartzeko eta espresatzeko askatasuna izan dugu, baina Partido Popularraren gobernuak askatasun horren aurka egin du. Denok oso argi dugu kargu publiko asko mehatxatua egotea Euskadiren etorkizunerako txarra dela. Aldi berean, gehienok ezker abertzalearen zati batek bere alderdia ilegalizatua izatea txarra dela uste dugu. Nahiz eta asko ez

diren hori publikoki esatera ausartzen.

...

Nire ustez guztiok nahi dugu salbuespen egoera hau gaintu, baina nola da kontua. Beste toki batzuetan antzerako gatazkekin egin dutena egin beharra dugu. Euskal politika ez da aldatuko guztion artean aldatzen ez badugu. Indarkeria estrategiaren garaia amaitu da, baita denari ezetz esatearena ere. Konstituzioaren eremuan egitasmo guztiak defendagarriak izatearen eta aurrera atera ahal izatearen aldekoa naiz. Hori lortzen den egunean, ez dut uste bakearen truke ezer ordaindu delako izango denik; 1978an hasi zen prozesuaren ondorio logiko eta demokratikoa baizik. Konstituzioko testua ez dago guztiz osatua, Euskaditik egin daitezkeen eskakizunak jaso behar dituela uste dut. Beti ere legearen barne, demokratikoki, egitasmo politiko guztiak zilegizkoak dira euskaldunen gehiengoa ados badago.

Zure alderdiak horren guztiaren alde egingo duela uste al duzu?

Alderdi sozialistak, Partido Popularraren ereduak ez den estatu eredu horren alde egitea espero dut. PPK ez du sekula estatuaren nazio aniztasuna onartu eta 78ko konstituzioan jasotzen den estatu ereduak ere ez du sekula gustukoa izan.

Vierbücher familia, 50 urte argazkiak egiten

Pako Vierbücherrek bere aitaren argazkiekin erakusketa prestatu du Itarte Etxean



Argazkia: Ainara Galan

Uztailaren 4a bitartean Pako Vierbücher-en artxiboko argazkiez osatutako "Vielux 1955" argazki erakusketa ikusgai dugu Zumarragako Itarte Etxean. Erakusketa prestatzeko, Pakok bere aita Josek 1955etik 1965era bitartean

herrian atera zituen argazkien artean hautaketa egin du. Erakusketaren aitzakiaz, bere familiaren jatorriaz eta bere aitak 1955ean Foto Luz denda ireki zuenetik Vierbüchertarrek egindako lanaz hitz egiten izan gara Pakorekin.


Vierbücher familia duela bi belaunaldi etorri zen Alemaniatik Euskal Herrira, gerratik ihesi hain zuzen ere. Izan ere, aitaren aldeko Pakoren aitona alemaniar ezkertiarra zen eta amona, berriz, judua. "Nire aitona ezkertiarra zen eta jendea gerratik libratzen lagundu zuenetako bat izan zen. Bere bigarren emaztea judutarra zen eta hil ez zezaten ezkondu zen berarekin. II. Mundu Gerra hasi zenean Bartzelonara joan ziren, non nire aitona irriatiak egiten aritu zen".

Pakoren aitona trebea zen non-bait, eta Euskal Herrian lana eskaini zioten. "Amezketako kobre-garbitzegira langile-buru lana egitera etorri zen. Tolosan motore bobinaketa tailerra ere izan zuen. Bere txartelan ingeniaria eta asmatzailea zela jartzen zuen".

Aitak, ordea, argazkigintza munduan egin zuen bidea. "Aita Bartzelonan jaio zen eta soldaduskan abiazio argazkilaria izan zen. Hegazkinean metro bateko argazki kamera montatu eta Espainia osoan zehar aire-prospekzioak ateratzen zituen. Soldaduskan ikasi zuen argazkiak errebelatzen. Ondoren, Tolosako Foto Martín-en laborategi-buru lanean hasi zen. Ama, berriz, *gerrako haurra* izan zen: aita iraultzailea zuen eta 1936ko gerra lehertu zenean Londonera bidali zuten. Handik bueltan, aitaren aldeko aitona bobinatu tailerrean lanean hasi zen eta han ezagutu zuen nire aita".

1955ean, Jose Vierbücherrek bere kabuz lanean hastea erabaki zuen eta Zumarragako Legazpi kaleko "Foto Luz" denda ireki zuen. "Tolosan bizi zirenez, motorrean etortzen zen egunero. Ondoren, Urretxuko San Martin auzora bizitzera etorri ziren".

Garai hartan errebelatze lana ere argazki dendetan egiten zenez, Pakok eta bere anai-arrebek txikitatik aita lagundu eta argazki munduan murgildu ziren. "Nire anaiak eta nik asko laguntzen genion aitari laborategian. Hala, bost anai-arrebetatik hiru argazkilaria irten ginen: joan zitzaizgun Kike, Legazpiko Ricardo eta ni. Udan, oporretako argazki asko errebelatu behar zirenez, anaiak eta aitarekin lan egiten



Pakoren aita, Jose, abiazio argazkilaria izan zen soldaduskan

zuen mutil batek argazkiak errebelatzen zituzten eta nik garbitu, eseki, lehortu eta esmaltatu egiten nituen".

Koxkortu zenean ikastera Mugairera bidali bazuten ere, Pakok argazkigintzan lan egiten bukatu zuen. "Nire anaia nagusiak nik baino ordu gehiago ematen zituen aitarekin lanean, nik Mugaireko maristen ikastetxean ikasten bainuen. Herrira etortzen nintzenean, laguntza beharrean bazeuden, lagundu egiten nuen, noski. Pixkanaka argazki munduan murgildu nintzen eta aitak dendan lan egin nahi nuen galdetu zidanean, ba, beste bat gehiago. Beranduago, soldaduskan nengoela, Legazpiko denda ireki genuen".

Ordurako, Foto Renedo eta Foto Maestro argazkidendak ere irekita zeuden. "Renedok gurekin lan egin zuen 20-30 urtetan eta Maestoren lan gehienak aitak errebelatzen zituela entzuna dut. Foto Luz-

etik Foto Renedo, Legazpiko denda eta Urretxun nik ireki nuena sortu dira, baina aita hasi zenean Foto Bueno besterik ez zegoen".

Garai haietatik gaurdaino, asko aldatu dira gauzak. Baita argazkilaria ere, noski. "Aitak ordenadore bidezko ukituen kontua ikusiko balu... berak orduak eta orduak eman zituen lan horretan. Lehen argazkilaria prozesu osoa jarraitzen zuen. Aitak behar zituen kimikagaiak ere berak prestatzen zituen, nahasketak egiten zituen, errebelatu, argazkiei zenbait ukitu eman... Lan honetan, gainontzekoetan bezala, egunean egon beharra dago; baina argazki mundua ziztu bizian doa: ordenadore programak, aparailuak... berehala zaharkituak gelditzen dira".

Eskulana nagusi zen 50eko hamarkadatik hona, Foto Luz argazki dendan makina bat lan egin dira. "Ezkontzetako argazkiak batez ere. Industrietarako lan asko ere egin ditugu. Aitak Gipuzkoa osorako lan egiten zuen, baina lan hau asko jaitsi da. Izan ere, edozein enpresatan dute jada argazki kamera digitala eta ez dira garai batean bezainbeste katalogo egiten. Argazki zaharrak txukuntzen ere lan handia egin dugu. Egun, digital kontuan, momentuan errebelatzen,

lan handia dugu".

Pakoren aitak egiten zituen lan guztiak gordetzeko ohitura zuenez, sekulako balioa duen artxiboa osatu zuen. Pakoren esanetan, aitak utzi zituen argazkiekin Itarte Etxean prestatu duen erakusketaren pareko beste 25 bat erakusketa presta daitezke. "Ezkontzetako eta jaunartzetako argazkiekin eta familia argazkiekin bete zuen kutxan 9X12 zentimetroko 15.000 plaka daude. Horretaz gain, 200.000 negatibo inguru izango dira: festak, bataioak, obrak, paisaiak, herriko bistak, eraikinak...".

Gezurra badirudi ere, Gipuzkoan antzerako tamainako artxibo gehiago omen daude. "Gipuzkoan nire aitaren eskolako argazkilari asko daudela kontuan izan behar da. Tolosako Martín eta Ritxarren, Zarauzko Xantin... ere sekulako artxiboak izango dira. Bilerak izaten zituzten eta Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen sortu zuten. Bueno ere itzal


"Bueno ere itzal handikoa izan zen herri mailan, baina ez dakit bere artxiboa non den"

handikoa izan zen Urretxu-Zumarraga mailan, baina ez dakit bere artxiboa non den. Berak ateratako argazki asko ditut, horietako batzuk Otamotzen argitaratu dituzue".

Semearentzat aitak ateratako argazki guztiak harribitxien balioa duten arren, argazki batzuk estimu berezian ditu. "Estimu handiengan ditudanak, aitak atera zituen herriko bisten lehen argazkiak dira. Central Hispanotik Cuatro Vientos aldera atera zuen bat oso gustukoa dut. Argazki horretan Pacorro taberna eta kamioi zahar bat ikusten dira eta Txetxeniako herri batean aterata dagoela dirudi".

Vierbüchertarren ekarpena handia bada ere, Pakok ez dio berebiziko garrantzirik eman nahi. "Gure ekarpena herrian gustura bizi den edonork egin dezakeen parekoa da. Hemendik urte batzuetara aitaren, Kikereren, Legazpiko anaiaren edo nire artxiboak hor egotea, hemen egon garen testigantza izatea, polita da. Jakak bere artxiboa udalari eman dio eta herriaren alde lan egin zuela jasota geldituko da. Egunen batean nik berbera egingo dut nire artxiboarekin: Udalari emango diot edo alabaren esku utziko dut eta berak Vierbücher familiaren alde egiten jakingo du. Herria urteen poderioz nola aldatu den erakusten duten argazkiek balio historiko eta grafiko handia dute. Nire aitak eta beste pertsona batzuek argazki horiek egin izan ez balituzte, ez genukeen jakingo garai batean herria nolakoa zen".

Aitaren omenez prestatutako erakusketa



Zer dela eta erabaki duzu erakusketa prestatzea?

Urte hauetan guztietan egingo lanari probetxua ateratzeko asmoz izan da. Lehiaketetan parte hartu dut, ezkontza argazkiekin sariak irabazi ditut... baina urte hauetan guztietan ez dut erakusketa bakar bat eskaini.

Zer ikusi dezakegu Itarte Etxeko erakusketan?

Erakusketa 130X70 zentimetroko 20 panelez osatua dago. 25-30 argazki zaharrez osatutako ordenadore bidezko muntaiak egin ditut eta inprimatzera bidali

ditut. Erakusketako argazki guztiak aitak 1955 eta 1965 tartean ateratakoak dira. Aitari omenaldi modukoa da. Berak utzi zituen argazkiekin 25 erakusketa presta daitezke. San Telmo museoan ere berak ateratako argazkiak topatu ditut. Erakusketa iragartzen duen orrian bere erretratua ageri da, berak egindako lanak merezi duen errekonozimendua ez duela izan uste baitut.

Zer dela eta diozu hori?

Lana besterik egin ez zuen gizona izan zen. Bai berak edo bai berarekin lan egiten zuen mutilak, herrian jazotzen ziren guztien eta herriak izaten zituen aldaketa guztien argazkiak ateratzen zituzten. Kale, eraikin, obra... guztien argazkiak biltzen dituen artxibo bat dut. Aita inurrien parekoa zen: argazki guztietan argazki horiei buruz zuen informazio guztia jartzen zuen. Dena artxibatuta dago, baina digitalizatu beharra dago eta hortan ari naiz.

Beste erakusketaren bat prestatzeko asmorik al duzu?

Hil zen anaia Kike omentzeko asmoa dut. Hura izugarria zen! Kontzertuetan, manifestazioetan... argazkiak ateratzen zituen. Negatiboz betetako 200 orrialdeko bere 7 edo 8 album ditut. Album horietako batean Gipuzkoako herri guztien argazkiak daude. Beste album batek "Esto también es Euskadi" izenburua du eta manifestazioak, polizia egurra ematen, kontzertuak... ikus daitezke. Lantzen zituen gai guztien artean aukeraketa egin behar dut. Kontzertuetan, parrandan... kamera gainean eramaten zuen beti. Argazki kamerarekin gehien gozatzen zuena bera zen.



Kalebarren-Areizaga, euskaltzaleon plaza

Santa Isabel jaietako egitarauan sustraiak botatzen ari den ekimenetako bat Kalebarren-Areizaga plazako gune euskaltzalea da. Urretxu-Zumarraga Ikastola izan zen, Kilometroak 2002 zela eta, bertan txosna jarri eta kultur ekitaldiak antolatu zituen lehena. Iaz, ekimenaren arrakasta ikusirik, Egunkariaren Aldeko Batzordeak Ikastolakoei utzitako lekukoa hartu zuten. Aurten, berriz, Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkarteak izango da euskaltzaleon bilgune den txosna jarriko duena. Dirurik ateratzen bada, Goierriko Hitza euskarazko egunkariari emango zaio.

Zintzo-Mintzo elkarteak Urretxu eta Zumarragako Udalekin hitzarmena sinatua du eta hitzarmen horrek elkarteak Zumarragako jaietan euskaltzaleak elkartuko dituen kultur ekitaldiren bat antolatu behar duela jasotzen du. Zintzo-Mintzoren helburua festetan eta gizartearen presentzia izatea ere badenez, txosnak eta bere inguruko kultur ekitaldiek horretarako aukera bikaina eskaintzen dute.

Antolaketa lana Zintzo-Mintzok bere gain hartu badu ere, helburua elkarteak herrira zabaltzea izanik, alor desberdinetako jendea arituko da txosnan lanean. Ikastetxeetako, koadriletako... 40

bat lagun izango dira txosnan lan egingo dutenak.

Lagun hauek guztiak ostegun arratsaldean hasiko dira lanean, egun horretan irekiko baita txosna. Santa Isabel bezpera den horretan, bi ekitaldi izango dira: 20:00etan Bertso Eskolako gazte-txoei bertso-trama eskainiko dute eta 22:30etan Patxi Saiz abeslari getariarrak eta bere taldeak, Juan Luis Aranburu herritarra tartean, kontzertua eskainiko dute.

Ostiralean, Santa Isabel egunean, ez da kultur ekitaldirik izango Kalebarren-Areizagako txosnan. Txosna jaitsieraren ostean irekiko da eta, bertan, goizean

goiz hasitako parrandarekin jarraitzeko aukera izango dugu.

Larunbat eta igandean txosna goiz eta arratsalde irekiko da. Larunbatean, 22:30ak aldera, Morau kantari hernaniarraren kontzertua izango da. Igandean, berriz, bi ekitaldi izango dira: 19:00etan Bertso Eskolako bertso saioa izango da eta 20:00etan Gorka Hermosa akordeoilariak kontzertua eskainiko du.

Bestalde, iazko moduan, txosna inguruan Gotzon Aranburuk ateratako argazkien erakusketa izango da. Aurten, Gotzonek azken urtebetean Zumarraga-Urretxun jazo diren gertakariak eta antolatatu diren ekitaldiak erakutsiko dizkigu bere argazkien bidez.

Ekitaldi hauez guztiez gain, euskararen normalizazioaren aldeko itsaski zozketa berezia ere izango da. Zintzo-Mintzok 2.000 txartel jarri ditu salgai, normalean baino 1.000 gehiago, eta zozketa igande arratsaldean izango da.

Zintzo-Mintzo elkarteak euskaltzale gunea urtero antolatzeko asmoa du. Izan ere, aurreko bi urteetan jende asko mugitu da, lan talde polita osatu da eta oso giro atsegina sortu da txosnaren inguruan.

Hitza: Goierriko albisteak egunero etxean

Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkartekoek, txosnak dirua ematen badu, diru hori guztia Goierriko Hitza euskarazko eskualdeko egunkaria martxan jartzen laguntzeko erabiltzea erabaki dute.

Hitza Euskal Herriko hainbat eskualdetan kaleratzen da dagoeneko: Tolosaldean, Oarsoaldean, Lea-Artibai eta Mutrikun eta Urola Kostan. Egitasmo honen bultzatzailea den Bertako Hedabideak-en asmoa urte amaierarako Goierri ere Hitza kaleratzea da.

Goierriko Hitzaren sustatzaileak Berriak sortutako Bertako Hedabideak bera, Goierriarra aldizkaria, Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkartea eta Goierriko gizarte eragileak izango dira.

Hauen guztien asmoa egunero, astelehenetan eta abuztuan izan ezik, zortzi orrialdeko euskarazko egunkaria Goierriko 22 herrietan banatzea da. Printzipioz, zortzi orrialde hauetatik lautan Beasain eta inguruko herrietako informazioa jorratuko da eta bitan Legazpi, Urretxu eta Zumarragako infor-

mazioa. Egunkaria doan eramango zaie egunero etxera Goierriarra eta Otamotz aldizkarietako harpidedunei eta eskatzen duten gainontzeko goierritarrei.

Egunkari berriaren helburu nagusia euskararen normalizazio bidean Goierri mailako komunikabideak osatzea izango da; Berriak eta herri aldizkariak eskaintzerik ez duten eguneroko euskarazko herri informazioaren hutsunea betetzea, alegia. Baina proiektuak beste helburu batzuk ere baditu: euskara, euskararen inguruko mugimenduak eta euskaltzaletasuna sustatzea eta laguntzea, euskararen normalizazioa eta garapena lortzeko baliagarria izatea, herritarrei eta taldeei hitza ematea, Goierriko eta Euskal Herriko euskarazko komunikabideen artean elkar ezagutza handiago lortzea eta euskarazko komunikabideen erreferentzialtasuna lortzea.

Helburu hauek guztiak lortzeko bidean, Goierriko Hitza euskaltzalea, anitza, orekatua, baterakoia, parte-hartzailea, independentea, konprometitua eta profesionala izango da.

Goierriko Hitza komunikazio proiektu berrirako lanpostu hauek bete behar dira:

KAZETARIAK

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Kazetaritza ikasketak izatea, Kazetaritza ikasten egotea edo kazetalan lanetan esperientzia izatea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.
- Quark X Press programa ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali uztailearen 10erako.

idazkaritza@bertako.net

KOMERTZIALA

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Soldata finkoa, gehi komisioak.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali uztailearen 10erako.

idazkaritza@bertako.net

KUDEATZAILEA

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Soldata finkoa, gehi komisioak.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Kudeaketa mailan ezagutza izatea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.
- Ofimatika ezagutzak izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali uztailearen 10erako.

idazkaritza@bertako.net

Santa Isabelak 2004

UZTAILAK 1, OSTEGUNA

- 8:00 - ASTEROKO AZOKA, Euskadi enparantzan.
11:30 - Secundino Esnaola Musika Eskolako TRIKITILARIEN kalejira.
17:30 - EGIZU LO, TARTALO! haurrentzako antzezlan, Zelai-Arizti Aretoan. Sarrerak: 2 euro.
18:30 - ANTIOKO AMARI BISITA egingo diote herriko agintariak, Antzinako Ama txistulari taldearekin batera.
19:00 - BURUHANDIAK ETA ERRALDOIAK herriko kaleetan zehar. Irteera: La Salle-Legazpiko jolaslekua
19:00 - Txosnen irikiera, umore puntu batekin (bakarrizketak).
19:30 - ESLAVAREN SALBEA Andre Maria Jasokundearen parroikia-elizan, Parrokiako Abesbatzak abestuta.
20:00 - Bertso eskolako gazteen antzezpena Kalebarren-Areizaga plazan.
22:00 - L@S PUNKYS TAMBIEN LLORAN antzerkia, Zelai-Arizti pilotalekuan.
22:30 - PATXI SAIZEN kontzertua Kalebarren-Areizaga plazan.
23:00 - ELKARTEEN ARTEKO XXXIX. DANBORRADA. Herriko elkarteez gain, koadrilek, Goiargi eta Kimets-Goiargi abesbatzek, Zumarragako Musika bandak eta Tximeletak txarangak hartuko dute parte.
01:00 - KONTZERTUA, Zain taldearen eskutik, Zelai-Arizti pilotalekuan.
01:00 - DISKOTEKA + DRAG QUEENS Euskadi enparantzan.
Goizeko 3ak arte: Kalejira TXIMELETAK txarangarekin.

UZTAILAK 2, OSTIRALA SANTA ISABEL EGUNA

- 8:00 - Antzinako Ama txistulari taldearen KALEJIRA.
9:30 - Euskadi enparantzan elkartu, eta herriko agintariak nahiz herritarrek Andre Maria Jasokundearen parroikia-elizara joango dira; ondoren, herriko parrokiako kabildoekin batera Antioko Amaren elizara igotzeko.
11:00 - MEZA NAGUSIA. Hasieran, ohi den bezala, herriko dantzariak EZPATA-DANTZA eskainiko diote Ama Birjinari. Ondoren prozesioa egingo da txistulari eta ezpata-dantzarekin batera elizaren inguruan.
12:30 - OHOREZKO AURRESKUA, eliza aurreko zelaian.
13:00 - Bertsolariak (Joxe AGIRRE eta Imanol LAZKANO), Tolosako dultzaineroak eta trikitilariak.
14:30 - HERRI-BAZKARIA, bertsolariak eta trikitilariak alaiturik.
17:30 - ERROMERIA txistulariekin (ANTZINAKO AMA taldea), Tolosako dultzaineroekin eta trikitilariak.
19:00 - Antioko Amari BEDERATZIUURENA eta ARROSARIOA.
20:30 - AGURRA eta ITZULERA txistulariek, dultzaineroek eta trikitilariak alaituta, eta agintariak eta ezpata-dantzariak aurretik direla.
21:15 - KALEKO EZPATA-DANTZA, Euskadi enparantzan.
21:30 - ERROMERIA txistulariekin eta trikitilariak, Euskadi enparantzan.
21:30 - KALEJIRA SUGARRI txarangarekin.
23:00 - ROCK KONTERTZUA, Mehatxu, AFRIKA eta Surfing Caos taldeen eskutik Zelai-Arizti pilotalekuan.
23:00 - DANTZALDIA TWISTER taldearekin Euskadi enparantzan.
6:00 - TXOKOLATE-JANA txosnetan.
OHARRAK: - 10:00etatik 20:00ak arte Antioko bidea itxita egongo da.
- AUTOBUS ZERBITZUA DOHAIN IZANGO DA GOIZEKO 10etatik AURERRA. IRTEERA: ELIZA PAREAN. Taxi zerbitzuaz ere baliatu ahal izango da.

UZTAILAK 3, LARUNBATA KOADRILEN EGUNA

- 11:30 - KOADRILAK ELKARTU eta bazkarirako mahaiaik eta aulkiak jartzen hasiko dira, Euskadi enparantzan.
11:30 - Zumarragako Musika Bandaren KALEJIRA.
12:00 - HAURRENTZAKO PONIAK, La Salleko jolastokian.
13:00 - HERRI-POTEOA trikitilariak.
14:00 - KOADRILEN BAZKARIA Euskadi enparantzan.
16:30 - MUS TXAPELKETA, Txoko eta Haizea tabernekin antolatuta.
17:00 - PONIAK eta ADARDUNAK, La Salleko jolastokian.
18:00 - XXXIII. DANTZA LIBRE TXAPELKETA, Zumardi Elkarteak antolatuta, Euskadi enparantzan.
19:00 - ERREKORTADOREN txapelketa La Salle-Legazpi ikastetxeko jolastokian. Sarrerak 4 euro. 14 urte artekoek 2 euro.
19:30 - DANTZA ERAKUSKETA Euskadi enparantzan.
22:30 - MORAU-ren kontzertua Kalebarren-Areizaga plazan.
23:00 - KONTZERTUA: FAID AWAY, 7 GRILLOS eta RED BANNER, Zelai-Arizti pilotalekuan.
23:15 - SU ARTIFIZIALAK, ZARAGOZANA etxearen eskutik.
23:45 - SUZKO ZEZEENA herriko kaleetan zehar.
00:00 - LARRAIN DANTZA, Euskadi enparantzan.
00:30 - DANTZALDIA, NUEVA ALASKA orkestrarekin.

UZTAILAK 4, IGANDEA JUBILATUEN EGUNA

- 8:00 - BIGANTXAK La Salleko zezen plazan.
10:00 - PLATER-TIRAKETA, Urtatzako tiro zelaian.
12:00 - IDI-PROBAK: Elorriaga, Sagaspe, Belarreta eta Agerrehandi.
12:30 - GOIZALDE Jubilatuen Abesbatzaren eta ALBERO dantza taldearen saioa. Zelai-Arizti Aretoan.
13:00 - Haurrentzako KALE ANTZERKIA, Karmakros antzerki tailerraren eskutik, Kalebarren-Areizagan.
14:00 - HERRI BAZKARIA. Bazkalostean bertsolariak eta jolasak. Zelai-Arizti pilotalekuan.
14:30 - Jubilatuen BAZKARIA, Euskadi enparantzan.
17:00 - Jubilatuentzako DANTZALDIA EUSKODISKO DJ-rekin Euskadi enparantzan.
17:30 - PILOTA PARTIDAK Beloki pilotalekuan.
DEL REY-ZUBIETA vs. BERRAONDO-LASKURAIN
XALA-BARRIOLA vs. MTZ. DE IRUJO-GOÑI III
18:30 - IDI-PROBAK: Ipiñarrieta, Igaraberri, Balentiña eta Korta.
19:00 - BERTSO SAIOA, bertso eskolaren eskutik, Kalebarren-Areizagan.
20:00 - GORKA HERMOSAREN Kontzertua Kalebarren-Areizaga plazan.
20:30 - Idi-probetako SARI-BANAKETA.
22:00 - MARIACHI GARIBALDI taldearen kontzertua.

ZORIONAK!



Ainara



Aitor



Alberto



Alexander



Amaia



Arane



Aitor



Udane



Bisi



Casi



Amaia



Andoni



Ane



Arane



Floren



Gorka



Gurutze



Ibon



Imanol



Iñake



Iñaki



Beatriz



Ekel



Iñigo



Inazio



Iñigo



Iraia



Itziar



Iñaki



Irati



Jon



Jon



Jon



Jone



Jone



Jose Antonio



Jose Inazio



Manuel



Jokin



Leire



Julen



Laura



Mikel



Mila



Nerea



Luis



Mabel



Nerea



Mari Carmen



Mari Carmen



Mari Jose



Pirula



Marian



Olga eta Jon



Mirari



Miren



Mirian



Prontxo



Nerea



Xabier



Alberto eta Jone



Ainhoa

Zorionak denei eta ondo pasa Santa Isabel jaiak!

Susana Fraile, Olinpoko atearak zabal-zabalik



Susana Fraile eskubaloi jokalaria Urretxu eta Zumarragak aspaldiko urteetan eman duten kirolari onena izango da seguraski. Alacanteko Elda taldearekin hiru liga txapelketa eta Kopa txapelketa bat irabazi ditu eta, 26 urte besterik ez dituen arren, dagoeneko 67 partida jokatu ditu estatuko selekzioarekin. Iazko Munduko Txapelketan Espainiako selekzioak Joko Olinpikoetarako txartela lortu zuen, hein handi batean, Susanak eman zuen maila bikainari esker. Susana herrian izan da Diana Box taldekidearekin batera eta berarekin Joko Olinpikoei buruz hitz egiteko aukera izan dugu.

Joko Olinpikoetarako sailkatzea espero al zenuten?

Munduko Txapelketara ez ginen Joko Olinpikoetara sailkatzeko itxaropenaz joan, aurreko urteetan egindako lana hobetzeko asmoz baizik. Bigarren fasera pasatzearekin nahikoa genuen, baina bosgarren eta seigarren posturako partida jokatzera heldu ginen, norbegiarrei irabazi genien eta, hala, sailkatu egin ginen. Egia csan, talde gehientzat gure aurka jokatzea oso deserosoa da. Izan ere, 3-2-1 defentsa irekia egiten dugu, nahiko ondo nonbait, eta asko kostatzen zaie guri gola sartzea.

Sailkapenaren "errudun" nagusienetako bat izan omen zinen...

Jokalariz oso justu genbiltzanez, ia txapelketa guztia jokatu nuen, bai erasoan eta bai defentsan. Sekula halako erantzunkizunik izan gabea nintzen. Erantzunkizun horri eutsi nion eta oso ondo atera zitzaidan. Eman dezakedan guztia eman nuen. Orain, maila bera eman beharra dut. Zaila izango da, baina egin dezakedala uste dut.

Nola prestatu behar dituzue Joko Olinpikoak?

Uztailaren 1ean Granadara joango gara, aste pare bat altueran

IZERDI PATSETAN

ematera. Ondoren, Alacanteko Guardamarrera joango gara. Izan ere, bertako giroa Atenasekoaren parekoa omen da. Atenasera abuztuaren 9an joango gara eta lehen partida 15ean jokatuko dugu Angolaren aurka. Gero, Frantzia, Danimarka eta Korearen aurka jokatuko dugu.

Joko Olinpikoetan parte hartzea, gaintzeko kirolarientzat bezala, gorengoa izango da zuretzat.

Zeuri buruari helburuak jartzen dizkiozu: lehenengo Ohorezko Mailan jokatzea, gero talde nagusietako batean jokatzea, ondoren txapelketaren bat lortzea... gelditzen zitzaidan bakarra Joko Olinpikoetan parte hartzea zen. Hori ere heldu denez, ametsetan jarraitzen dut eta ea dominaren bat irabazten dugun!

Lortutakoaren garrantziaz jabetu al zara dagoeneko?

Sailkapena lortzeak poz handia eragin zigun, baina berehala bakoitzaren taldearekin jokatzea itzuli ginen eta Ligan, Europa mailako txapelketan eta Kopan konzentratu beharra izan genuen. Bestalde, Europako Txapelketarako sailkapena ere jokatu dugu. Horiek guztiak bukatu ondoren, Joko Olinpikoetan pentsatzen hasi gara, jendeak hautatzailearen zerrendan gaudelako zoriontzen gaitu...

Nola espero duzu bizitza egun horiek?

Inaugurazio ekitaldiaz, gaintzeko kirolariek batera bazkaltzeaz, hiri olinpikoaz... asko hitz egiten ari gara. Amestutako zer edo zer da, orain arte telebistan ikusi duguna. Oraindik ez gaude urduri, baina ezinegona badugu.

Etxekoak ere pozez zoratzen izango dira.

Familikoak nire jarraitzaileak dira, noski. Jarraitzaile sutsuena ahizpa da, bera ere eskubaloian aritu baitzen, eta oso hunkituta dago. Ez du Atenasera joaterik, baina egunero hitz egingo dugu. Dagoeneko, golen bat sartzen dudanean edo inaugurazio ekitaldian nola agurtuko dudan galdetzen ari zait eta zer edo zer egin beharko dugu...

Ahizpa ikusita hasiko zinen, gainera, eskubaloian...

Hernanira joaten nintzen ahizpa

jokatzen ikustera eta hala animatu nintzen ni ere. Bera ere gorengo mailan aritu zen, baina zorte pittin bat falta izan zuen urrutia-go heltzeko.

Zuk, ordea, gehiago eskatzerik ez duzu. Aurten hirugarren liga txapelketa ere irabazi duzu.

Zortzi urte daramatzat jada Eldan eta oso gustura nago. Dagoeneko etxea ere erosi dut bertan, hemen baino askoz ere merkeago baitaude etxebizitzak.

Estatu mailako talde onenean zaude, baina ez al litzaizuke gustatuko Txapeldunen Liga irabazi dezakeen talderen batean jokatzea?

Eskaintzaren bat izan dut, baina atzerrira joanez gero bizimodua zeharo aldatu beharra duzu. Hemen hiru liga irabazi ditut jada, baina egunen batean zer edo zer gehiago behar dudala somatzen badut, beharbada atzerrira joango naiz.

“Eldan eskubaloia
grinaz bizi dute
eta hori asko
atsegin dut”

Eskaintza asko izan al dituzu?

Danimarkako talde baten eskaintza izan nuen, Alemanian ere atzetik zebiltzala entzun zen... (Diana Box taldekideak esan zigunez, Munduko Txapelketa bikaina jokatutuan, Europako talde askok galdetu zuten Susanarengatik).

Egunen batean Euskal Herrira itzultzea gustatuko al litzaizuke?

Hemen Eldan baino hobeto egon naitekeela usteko banu, itzuliko nintzateke. Baina Elda talderik onena da eta hemengo taldeak, berriz, sailkapenaren erdialdean gelditzen dira. Gainera, Eldan oso ondo tratatzen gaituzte. Gure taldea herriko kirol talde nagusia da eta Europa mailako txapelketetako partidetara 2.800 pertsona inguru joaten dira gu ikustera. Eskubaloia grinaz bizi dute, gure lana eskertzen dute, eta hori asko atsegin dut.

MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



Lantza

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52




BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA



Juanjo Aranburu

Ikastolan eta Lizeoan ikasi ondoren, Juanjok Harreman Publikoak deritzan ikasketak egin zituen Donostian. Praktikak egin ondoren, Zumarragako Herrera zerbitzuan jardun zuen lanean.

Udaleko lana bukatu ostean, gurasoek Leturiarren plazan duten harategian lanean hasi zen. "Gurasoek aspalditik dute harategia eta berriztatzea eta pixkanaka gurasoei lana kentzea erabaki nuen. Txikitatik ezagutzen dut ofizioa, baina gurasoengandik asko ari naiz ikasten oraindik".

Juanjok oso gustukoa du harakin lana, nahiz eta bere alde txarrak ere badituen. "Jendearekin tratu handia izaten da eta horrela asko ikasten da, baina egunero ordu asko sartu behar dira".

Zumarratar peto-petoa izanik, dagoeneko Santa Isabel festetan pentsatzen ari da. "Urte guztian horren zain egoten gara eta, gainera, aurten ostirala denez, gogo bereziz gaude".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Futbolarekin zerikusia duen zer edo zer: bai futbolaria edo eta bai entrenatzailea.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Betikoa... parranda dexente atsegin dut (baina gero eta gutxiago egiten dut), koadrilakoekin egotea eta bazkari eta afariak egitea, eguraldi ona egiten duenean mendira edo hondartzara joatea...

-Bizitzeko toki bat?

Giro ona duen kostaldeko herri txikiren bat.

-Realean, harrobia ala atzerritarrek?

Futbola dagoen moduan, bien nahasketa komeni da; baina hiru edo lau atzerritarrekin nahikoa da.

-Nor fitxatuko zenuke?

Gorka Garcia ezker hegalerako eta Eto'o aurrelari posturako.

-Santa Isabel jaietako ekitaldirik gogokoena?

Santa Isabel eguna goitik behera, bederatziaurrena hasten denetik eguna bukatzen den arte.

-Jaietan zer edo zer aldatuko al zenuke?

Koadrilen eguna astegun batean jarriko nuke, larunbatean ekitaldi gehiegi baitaude.

-Santa Isabel jaiak ligatzeko onak al dira?

Nik neuk ez dut sekula ligatu, baina ikusten dudanez horretarako onak dira. Batek baino gehiagok oroitzen onak izango ditu.

-Haragia ala arraina?

Nahiz eta harakina izan, oso arrainzalea naiz. Haragia jatekotan, egosia nahiago dut.

-Gustuko bertsolariak?

Irazu, Gorrotxategi, Agirre, Sebastian Lizaso eta Amets Arzallus.

-Noiz irabazi behar duzu herriko bertsolari txapelketa?

Datorren urtean bai!

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Azkenaldi honetan, beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Zapata batzuk.

-Eta jasotakoa?

Liburu bat eta mendiko bota batzuk.

-Data bat?

Santa Isabel eguna.

-Neska eta mutil izen bana?

Markel eta Itsaso.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Irakurri, irakurri... bat ere ez; baina guztiak begiratzen ditut gaineratik.

-Gustuko telebista saioa?

Kirolarekin zerikusia duten gehienak. Azkenaldi honetan "Politicamente incorrecto" ere dexentetan ikusi dut.

-Bereziki gorroto duzuna?

Zapatu gauetan botatzen dituzten guztiak.

-Liburu bat?

Oparitu didaten liburua erretzeari uzteko da eta irakurtzen duzun bitartean erre dezakezulako gustatzen zait. Bukatzeko desiatzen nago, ea erretzeari uzten diodan!

-Filme bat?

Ez dut bereziki gustatzen zaidan bat.

-Soinu bat?

Itsasoarena.

-Usain bat?

Itsasoarena, baita.

-Janari bat?

Haragi egosia piperrekin.

-Ura ala...

Ura asko, baina baita ardoa eta asteburuko kubatak ere.

Zumarragako tabernak

Hemen da Santa Isabeletako giroa!



ALASKA
taberna

kaketa
kafe —

HUTS
TABERNA



ARKUPE
TABERNA

HIRUKIA
TABERNA

ARRUABARRENA
KAFETEGIA
GOZOTEGIA

TABERNA
Ibureta
JATETXEA

ALEXANDER
KAFETEGIA

urdin
TABERNA



TINO
kafetegia

KABIA
JATETXEA

Santa Isabelak 2004

Urretxuko giroa!!



Urretxuko Tabernariak

Florida • The Intrepid Fox • Laket • Motz
Goiko-Kale • Ezkurra • Navarro • Osaba
Avenida • Buhame • Aldapa

Ondo pasa jaietan!